



**FUNDACIÓN BASQUE TEAM FUNDAZIOKO KIROLARIEK NAZIOARTEAN  
EGITEN DITUZTEN LEHIAKETEN IKUS-ENTZUNEZKO EMANALDIAK  
KONTRATATZEKO BALDINTZEN PLEGUA.**

**02/2019 espedientea**

**1. AURREKARIAK**

FUNDACIÓN BASQUE TEAM FUNDAZIOA sektore publikoko fundazioa da. Irabazi asmorik gabeko eta interes orokorra bilatzeko jarduerak egiten ditu. Jardueren helburua nagusia da goi mailako euskal kirola lagundu, sustatu eta bultzatzea.

Bere fundazio-jarduera soziala egiteko, FUNDACIÓN BASQUE TEAM FUNDAZIOAK kirol jarduerari buruzko ikus-entzunezko materialak landu behar ditu, lan horien bidez goi mailako euskal kirolariak sustatu eta hedatzeko. Izaera sozialeko ikus-entzunezko materialak ere landu behar ditu, Fundazioak goi mailako kirolean genero-berdintasuna sustatze aldera egiten duen jarduera sustatu eta hedatzeko, eta enpresa nahiz hezkuntza arloetan goi mailako kirola sustatzeko. Material horiek FUNDACIÓN BASQUE TEAM FUNDAZIOAREN hainbat kanal edo atariren bitartez argitaratu eta hedatu behar dira eta, gainera, aipatu helburua lortzeko dagozkion akordioei eusteko entitateak dituen beste batzuen bitartez.

**2. KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa, lizitazioaren aurrekontua aintzat hartuta, Patronatuko idazkariak eta Fundazioko koordinatzaileak osatuko dute. Biek ala biek batera edo era mankomunatuan jokatu dute.

**3. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratu hau pribatua da, eta jurisdikzio-ordena zibilak eskumena du betearaztean sor daitezkeen gatazkak ebazteko.

Dena dela, kontratu hau azaroaren 8ko Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legearen (SPKL) III. Liburuko I. Tituluak arautuko du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora, fundazio publikoa den aldetik, duen izaera juridikoa dela medio, eta egiten dituen kontratuak direla medio. Halaber, lege honen ondoreetarako eta lege horren 3.1.e) eta 3.3.b) artikulua aplikatuz, sektore publikoko fundazioa den aldetik, adjudikatzeko ahalmena du.

Baldintzen Plegu honek kontratu-izaera du eta kontratua gauzatzeko baldintza zehatzak ditu.

**4. KONTRATATZEKO GAITASUNA**

Kontratu honen adjudikaziorako aukera dute jarduteko gaitasuna duten eta kontratatzeko debekurik ez duten pertsona naturalek edo juridikoek, Espainiakoek edo atzerriarrek. SPKLren 71.1 artikuluan zerrendatuta daude debekuok. Halaber, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo profesionala izan behar dute. Gainera, eskatzen den gaikuntza enpresariala edo profesionala izan behar dute.



kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa egiteko. Ondore horietarako, kontuan hartuko dira SPKLren I. Liburuko II. Tituluaren II. Kapituluaren jasota dauden arauak.

## **5. KONTRATUAREN XEDEA**

Fundación Basque Team Fundazioak ikus-entzunezko produkzio zerbitzuak kontratu behar ditu goi mailako euskal kirolariak nazioarteko lehiaketetan egiten dituzten jarduerak zabaldu eta jakinarazteko (Munduko txapelketak, Europako txapelketak edo Munduko Kopak edo erreferentzia-ekitaldiak).

Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzaren eta Fundación Basque Team Fundazioaren konpromisoak, komunikazioari eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokienez, eskatzen du, kontratuaren xede diren prestazioak direla eta, komunikazioa genero-ikuspegitik egin behar dela, hau da, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista baten bidez, baita ikuspegi inklusibo eta zabal baten bidez ere, betiere aintzat hartuta desgaitasun funtzionala duten kirolarien berezitasunak.

## **6. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA**

Fundación Basque Team Fundazioaren Komunikazio Sailak aurreikusi du ikus-entzunezko materiala prestatu behar dela Fundazioaren eta haren kirolarien jarduera ezagutarazteko.

Produktu horiek Fundación Basque Team Fundazioaren eskariz eskatuko dira, Fundazioaren Komunikazio Sailaren ikusgaitasun-politikak ezarritako beharren arabera.

Enpresa kontratistak prestasun osoa bermatu behar du edozein ekitaldi edo jardueraren berri emateko eta, Euskal Autonomi Erkidegotik kanpo, albistea izan den lekuetara joateko.

Zerbitzuaren prestazioa honako hauei jarraituz egingo da:

### **6.1- Entregatu beharreko produktuak:**

Fundación Basque Team Fundazioko kirolari bekadunek parte hartzen duten ekitaldien emanaldi bereziei buruzkoak (lehiaketa, prentsaurrekoak, gune mistoak, lehiaketa aurreko eta osteko elkarrizketak...). Horretarako, informazio-piezak prestatuko ditu, ikus-entzunezko formatuan, kalitate goreneko informazioa osatuko dutenak (informazioen audio korteak edo adierazpenak, errecurso planoak hautatu eta materialak editatu), irrati-kronikak, prentsa idatzirako eta online prentsarako testuak eta prentsarara bidaltzeko kalitate handiko argazkiak. Lana bukatuko da editatutako ikus-entzunezko materiala Fundazioko komunikazio arduradunari entregatzen zaionean. Hurrengo euskarri hauetarako lan egingo da, eta eskaripean bidaliko dira materialak, emanaldiak dirauen egun guztietan:

- **EiTB Taldea**
  - o Telebista: ETB1 eta ETB2 (erredakzioa, lokuzioa eta editatzea).
  - o Irratia: Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Gaztea (kroniken erredakzioa eta lokuzioa)
  - o Zuzeneko konexio posibleak hala telebistan nola irratan.
  - o Taldearen sare sozialetarako materiala.



- Taldearen webgunerako materiala.
- **Gainerako hedabideak**
  - Bideo-piezak, gainerako telebistetarako.
  - Kronikak, gainerako irratietarako.
  - Argazkiak, prentsara bidaltzeko.
  - Prentsa-oharrak idaztea.
- **Fundación Basque Team Fundazioa**
  - Bideo-piezak, Fundación Basque Team Fundazioaren youtube kanalerako.
  - Bideo-piezak, Basque Team-en sare sozialetarako.
  - Bideo-piezak, Basque Team-en babesleentzat.
  - Edukiak idaztea Basque Team-en web-orrirako.
  - Edukiak idaztea Basque Team-en sare sozialetarako.
  - Edukiak idaztea Basque Team-en newsletter-erako / Prentsa-oharrak.

### **Beste zehaztapen batzuk**

- Formatuei eta bateragarritasunari dagokienez, hedabideek eta web euskarri bateragarriek komunikazioan aurrera egiteko eta berrikuntzak sartzeko materialak esportatzeko egiten dituzten aldaketen berri izan behar du enpresak.
- Grabatutako materiala tratatu egingo da gordetzeko, eta aldiro emango zaio Fundación Basque Team Fundazioari. Dena dela, produkzio-etxeak irudi-bitartekoen artxibategia izan behar du eguneroko informazioak osatzeko.
- Enpresa adjudikaziodunak bermatu behar du bete egiten duela datu pertsonalen segurtasunari buruz indarrean dagoen araudia, Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, administrazio kontratugileak lagatako datuak erabiltzeari dagokionez.

### **6.2- Zerbitzuaren baldintzak:**

6.2.1. HD 1080p-n aurkeztuko dira grabazio guztiak eta .mov edo mp4 formatuan, H264 kodeka dutela, eta gutxienezko irudiaren lastertasuna 12 mbps.

6.2.2. Ezinbestekoa da aplikatzea, besteak beste, hurrengo jarraibideak informazioaren tratamenduan:

- Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista eta inklusiboa egingo da kontratua betearazteko erabiliko diren agirietan nahiz materialetan.
- Sexuka bereizitako datuak emango dira kirolariei buruzko albisteetan.
- Lehenago aipatutako lan guztiak ahalik eta berehalakotasun handienez egingo dira dena delako ekitaldia bukatzean, eta kalitate-estandar handiak gordeko dira edukiak aurkeztean eta produkzioaren estetikan.



- Lan guztiak (grabazioa, edizioa, errotulazioa eta lokuzioa, behar izanez gero) bi hizkuntzatan egingo dira, euskaraz eta gaztelaniaz. Bi pieza aurkeztuko dira beti, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz.

#### 6.2.3 Gastuak:

- o Enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira bideoak grabatzera eta irudiak hartzera jatorritik edo bizilekutik kanpo desplazatu behar duten pertsonen garraio, ostatu, mantenu eta seguru gastuak. Kirol lehiaketak edozein herrialdetan, lurraldetan edo kontinentetan izan daitezke.
- Kalkulu edo orientabide huts gisa, eta loteslea ez dela, batez beste, goi mailako lehiaketei buruzko informazio-emanaldien 50 egun urtean kalkulatu da. 2019an honako hauek:
  - o European Games Minsk hirian (Bielorrusia): ekainaren 22tik uztailaren 1era (biak barne)
  - o Munduko sprint piragüismo txapelketa Szeged hirian (Hungaria): abuztuaren 20tik 25era (biak barne)
  - o Munduko surf txapelketa (Miyazaki): irailaren 6tik 19ra (biak barne) (Tokiora hegaldi bat hartu beharko da irailaren 15ean)
  - o Munduko slalom piragüismo txapelketa La Seu d'Urgell-en (Lleida): irailaren 25etik 29ra (biak barne)

Dena dela, aldatu egin daiteke ekitaldi kopurua. Aipatutakoren bat bertan behera geratu eta beste batzuek ordezkatzeko.

- Kontratuan sartuta ez dauden gastuak honako hauek dira:
  - o Iragarkiak edo grabazio bereziak sortzea, eta aparteko materiala edo edukia behar izatea, hala nola, gidolariak, teknikari laguntzaileak, audio eta bideo postprodukzioa, etalonajea, aparteko argiztapena, optika bereziak, ad hoc sorkuntza musikalak, etab.
  - o Diseinu grafikoak edo grafismoa-animazioak.

#### 6.2.4. Fundación Basque Team Fundazioaren Komunikazio Sailak erabakiko zein lehiaketaren emanaldi egingo den urtero.

Fundación Basque Team Fundazioarenak dira enpresa adjudikaziodunak aurkeztuko duen ikus-entzunezko material guztiaren eskubideak.

Albisteak, horien tratamendua, argazkiak eta ikus-entzunezko piezen edukiak Fundación Basque Team Fundazioaren Komunikazio Sailak adostuko ditu enpresa adjudikaziodunarekin.

### 6.3- Giza bitartekoak:

Fundación Basque Team Fundazioak kobertura osoa behar izango du, gutxi gorabehera eta batez beste, 50 egun urtean, urte sasoia edozein dela, kamera-operadore batek emanda, eta bideoak editatzen esperientzia duena. Editatzean aditua den kazetari batek ere emango du. Emanaldiak asteburuetan eta jaiegunetan ere



izango dira, lehiaketak eta informazioak hala eskatutzen badute.

Enpresa kontratistak kontratuan ageri diren eguneroko eta balizko beharrei egingo die aurre, eta jarduerak koordinatuko ditu, erantzun-denborak ahalik eta arinenak izan daitezzen.

Lanaldiak aldakorrek izango dira, Fundación Basque Team Fundazioaren beharretara egokituak, eta bereziki aintzat hartuko dute langile-kopuru nahikoa dagoela oporraldiak eta balizko ordezkapenak betetzeko.

Enpresa kontratistak aldez aurretik eta garaiz jakinaraziko du zein izango den langileen antolamendua oporraldietan.

Fundación Basque Team Fundazioari zerbitzua emango dioten enpresa kontratistako langileek, gutxienez, honako profil hauek izan behar dituzte:

- Gutxienez, telebista-kamerako operadore bat, eta, gainera, Fundación Basque Team Fundazioak eta EITBk erabiltzen dituztenekin bateragarriak diren programetan editatzen dakiena (Premier, Final Cut, After Effects; Photoshop).

- Kamera-operadoreak ezagutza eta esperientzia izan behar du 4G zuzenekoak egin ahal izateko.

- Idazlari-kazetari bat, honako baldintza hauek betetzen dituena:

- Fundación Basque Team Fundazioak eta EITBk erabiltzen dituztenekin bateragarriak diren programetan editatzen jakitea (Premier, Final Cut, After Effects; Photoshop).
- Irratian eta telebista profesionalean esperientzia izatea.
- Telebistarako erredakzio eta lokuzio teknikak euskaraz eta gaztelaniaz ondo ezagutzea.
- Esperientzia izatea telebistarako zuzenekoak egiten.
- Esperientzia izatea telebistarako produkzio lanetan.
- Irratian euskaraz eta gaztelaniaz esperientzia izatea.
- Esperientzia izatea prensa idatzian, euskaraz eta gaztelaniaz.
- Esperientzia izatea, informatzaile gisa, kirol ekitaldi olinpiko eta paralinpikoetan.
- Esperientzia izatea, argazkilarri gisa, kirol ekitaldi olinpiko eta paralinpikoetan.
- Ingeles maila nahikoa egiaztatzea, komunikazioak eta emanaldiak era itxurosoan egiteko bestekoa.

#### **6.4- Bitarteko materialak:**



Enpresa adjudikaziodunak, kontratua betearaztean, gutxienez, honako bitarteko hauek atxiki behar ditu:

- Emanaldiak zuzenean emateko ekipo bat.
- Telebista-kamera bat, euskarri, argiztapen eta audiorako osagarri guztiak dituen.
- Eskuko mikrofonoak eta paparreko hari gabekoak.
- Ordenagailu eramangarriak, irudiak azkar erabiltzeko eduki eta ezaugarri nahikoak dituztenak.
- Irudien emanaldia egiteko sistema, 4G motxila erakoak.
- USB 4G modemak.
- Edizio-programen lizentzia bateragarriak eta bideo- nahiz audio-bihurgailuak Basque Team-EiTBn erabiltzen diren formatuetara (iTunes, Mpeg streamclip, Visualhub, All2mp3, Compressor, Flas Media Live Encoder).
- Ekipoak eta materiala eramateko ibilgailu aproposak.
- Erabilitako ikus-entzunezko ekipo eta agiri guztiak kalitatekoak izango dira eta Mc Apple ordenagailuekin bateragarriak; gaur egun horietan erabiltzen dituzte eta Fundación Basque Team Fundazioaren Komunikazio Sailak.

## **7. LIZITAZIO-AURREKONTUA**

Lizitazio-aurrekontua, gehienez, hauxe izango da:

Ordainsariak: 47.000 €

BEZ: 9.870 €

Kopurua hori gehieneko aurrekontua da, eta zifra horretatik gorako eskaintzak kanpoan geratuko dira.

## **8. KONTRATUAREN IRAUPENA**

Zerbitzua 2019ko abenduaren 31ra arte emango da.

Fundación Basque Team Fundazioak eskubidea du kontratua uneoro deuseztatzeko, ados ez badago eskatutako zerbitzuarekin, zerbitzua ez emateagatik adjudikazioa ekarri duten baldintzetan.

## **9. KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA ERA**

Kontratu hauek adjudikatzeko, Fundación Basque Team Fundazioak prozedura ireki erraztua abiaraziko du.



## 10. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitazio honetan parte hartu nahi dutenek, beren eskaintza aurkeztuko dute ondoren adierazten den egoitza-elektronikoan, [www.contratacion.euskadi.eus](http://www.contratacion.euskadi.eus). Bi gutunazal elektronikotan aurkeztuko da proposamena, 2019ko ekainaren 7an 15:00ak baino lehen. Ez dira onartuko paperean aurkeztutako eskaintzak.

## 11. PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA

Eskaintzak aurkezten dituzten enpresek honako alderdi hauek sartu behar dituzte:

### A.- 1. gutun-azala – Proposamen administratiboa eta balio-iritziaren mendeandauden irizpideak

Proposamenak honako agiri hauek izan ditu:

#### 1. Jarduteko gaitasuna honako hauekin egiaztatuko da:

A. Jarduteko gaitasuna duela eta kontratatzeko debekurik ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 71. art., Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora, II. Eranskina)

B. Lizitaziora aurkeztu nahi duten pertsona juridiko guztiek hurrengo agiriak erantsi behar dituzte titular erreala identifikatzeko (kapitalak zuritzea prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 3. eta 4. art.):

Pertsona fisikoaren edo fisikoen identifikazioa, hain zuzen ere, kapitalaren % 25etik gorako portzentajea, zuzenean edo zeharka, izan edo kontrolatzen dutenak edo pertsona juridiko baten boto-eskubideak dituzten edo kontrolatzen dituztenak, edo beste bitarteko batzuen bidez pertsona juridikoaren kudeaketa, zuzenean edo zeharka, kontrolatzen dutenak. Salbuetsita daude EBko edo hirugarren herrialde baliokideetako merkatu arautu batean kotizatzen duten sozietateak (III. Eranskina).

C. Ordezkaritza egiaztatzeko agiriak: Ordezkazteko ahalordea duen pertsonak ahalordeen kopia aurkeztu behar du, notario edo administrazio bidez, baita Nortasun Agiriaren kopia ere edo, hala badagokio, horren ordezkoa den agiriaren kopia.

#### 2. Espainiako enpresaburuak

##### Nortasun juridikoa duten enpresak

Pertsona juridikoak diren enpresaburuaren jarduteko gaitasuna eratze- eta aldatze-eskriburaren bidez, egiaztatuko da, Merkataritza erregistroan inskribatuak, baldintza hori aplikatuko zaion merkataritza-legeak hala eskatuta. Horrela ez bada, jarduteko gaitasuna estatutuen bidez edo sortze-egintzaren bidez egiaztatuko da; betiere, haien jarduera erregulatzeko arauak agiri horietan egon beharko dira jasota. Eta pertsona juridiko horiek pertsona juridikoaren motaren arabera dagokien erregistro publikoan



behar bezala erregistratuta egon beharko dira. Edo bestela, Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskadiko Autonomi Erkidegoko Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, hala badagokie

#### Enpresaburu atzerritarrak

Europar Batasuneko enpresak edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetaoak:

Dena delako prestazioa emateko gaituta daudela egiaztatzen duten enpresak aurkeztu ahal izango dira, haiek ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 67. art., Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentzarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).

#### Europar Batasunaz kanpoko enpresak

Europar Batasunekoak ez diren edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu ez duten estatuetao pertsona fisiko edo juridikoek txosten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresak jatorri duen estatuak bere aldetik enpresa espainiarren parte-hartzea onartzen duela sektore publikoko enteekiko kontratazioetan, funtsean antzekoa den modu batean. Erregulazio harmonizatuko kontratueta, Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetao enpresek ez dute aurkeztu behar elkarrekikotasunari buruzko txostena.

Halaber, obra-kontratu denean, enpresa horrek Espainian sukurtsal bat izan beharko du, eragiketarak egiteko ahalordedunak edo ordezkariak izendatuta, eta sukurtsal hori Merkataritzako Erregistroan inskribaturik egongo da (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 68. art., Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentzarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).

#### Enpresen denbora baterako elkarteak

Enpresa bi edo gehiago denbora baterako elkarturik agertuz gero lizitazio batean, elkarte osatzen duten enpresaburu bakoitzak bere nortasuna, gaitasuna eta ordezkariak egiaztatu beharko ditu, eta agiri pribatuan adieraziko dituzte partaideen izenak eta inguruabarrak, bakoitzak zenbateko partaidetza duen eta kontratuaren indarraldian ordezkariak izango duen pertsona edo entitatea ere (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 69. art., Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentzarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).

#### Pertsona fisikoak

- Identifikatzeko agiriak
- EJZn alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria

### **3. Kaudimena**



3.1) Ekonomikoa, urteko negozio-bolumenak edo kontratuari dagokion eremuko urteko negozio-bolumenak –eratze-daten arabera edo enpresaburuaren jarduerak hasi ziren edo eskaintzak aurkeztu ziren dataren arabera, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietatik ekitaldi onenari dagokionak– lizitazio iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuaren baldintza-agirietan eskatutako zenbatekoa –edo, haren faltan, erregelamenduz ezarritakoa– berdindu edo gainditu beharko du. Gainera, eskatzen den urteko gutxieneko negozio-bolumena ez da kontratuaren balio zenbatetsiaren bat eta erdi halako baino handiagoa izango, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik, nola baitira obren, zerbitzuen edo horniduren izaerari lotutako arrisku bereziekin lotutakoak.

### 3.2) Teknikoa

Honako baldintza hauek betetzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa:

- Gutxienez, 5 urteko esperientzia profesionala goi mailako euskal kirol olinpikoari lotutako bideo, sustapen-bideo, erreportaje, dokumental edo edozein ikus-entzunezko produkturen produkzioan, grabazioan, edizioan eta postprodukzioan.
- Gutxienez, 5 urteko esperientzia profesionala goi mailako euskal emakumezko kirolari olinpikoei lotutako bideo, sustapen-bideo, erreportaje, dokumental edo edozein ikus-entzunezko produkturen produkzioan, grabazioan, edizioan eta postprodukzioan (kirola eta emakumea).
- Gutxienez, 5 urteko esperientzia profesionala goi mailako euskal kirolari paralinpikoei lotutako bideo, sustapen-bideo, erreportaje, dokumental edo edozein ikus-entzunezko produkturen produkzioan, grabazioan, edizioan eta postprodukzioan (goi mailako kirol egokitua).
- Azken 5 urteotan, esperientzia profesionala goi mailako euskal kirol olinpikoari lotutako informazioen erredakzioan eta lokuzioan.
- Gutxienez, 5 urteko esperientzia profesionala telebistarako zuzenekoak egiten.
- Azken 5 urteotan, esperientzia profesionala telebista-produkzioan.
- Azken 5 urteotan, irrati-esperientzia euskaraz eta gaztelaniaz.
- Esperientzia prensa idatzian euskaraz eta gaztelaniaz.
- Azken 5 urteotan, esperientzia informatzaile gisa, kirol ekitaldi olinpiko eta paralinpikoetan.
- Esperientzia, argazkilari gisa, kirol ekitaldi olinpiko eta/edo paralinpikoetan.
- Plegu hauen 6.2, 6.3 eta 6.4 puntuetan adierazitakoa egiaztatzeko **beharrezkoa den guztia** (hala bitarteko materialei nola pertsonalei dagokienez)

Baldintzak egiaztatzeko, egindako lan horien ziurtagiriak aurkeztuko dira.

Ezohiko balioak edo balio itxuragabeak dituen eskaintza kalkulatzeko, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 85. artikuluari jarraituko zaio, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu orokorra onartzen duena, eta era berean, eskaintza nabarmenki baxuegien kasuan, honako honi jarraituko zaio: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 149. art., Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo baliokidea den erregistro autonomikoan inskribatuta egon behar da.

#### **4. - Balio-iritzi baten mendeko irizpideak**

Proposamenak honako agiri hauek izango ditu:

- Telebista profesionalerako egindako informazio-piezak, hain zuzen ere, goi mailako euskal kirol olinpikoari lotutakoak, hala euskaraz nola gaztelaniaz.
- Telebista profesionalerako egindako informazio-piezak, hain zuzen ere, goi mailako euskal kirol olinpikoari eta emakumeari lotutakoak, hala euskaraz nola gaztelaniaz
- Telebista profesionalerako egindako informazio-piezak, hain zuzen ere, goi mailako euskal kirol paralinpikoari lotutakoak, hala euskaraz nola gaztelaniaz
- Euskal Irrati Telebista Publikorako (EITB) lan egin izana egiaztatzen duten piezak.
- Gaztelaniazko irrati-kronika informatibo bat, goi mailako kirol olinpikoari buruzkoa.
- Euskarazko irrati-kronika informatibo bat, goi mailako kirol olinpikoari buruzkoa.
- Prentsa idatzirako euskarazko artikulua bat.
- Prentsa digitalerako euskarazko artikulua bat.
- Sare sozialak erabiltzen (Facebook, twitter, Instagram) esperientzia duela erakusteko adibideak.
- Goi mailako euskal kirol olinpikoari edo paralinpikoari lotutako ikus-entzunezko produkturen baterako produkzio-lanak egin izana frogatzea.

Hauek hartuko dira aintzat: irudiaren kalitatea, audioaren kalitatea, lokuzioa eta erabilitako efektu posibleak, balioak helaraztea, edukia, originaltasuna, sormena, etab.

Lanak edo horiek ikusteko esteka elektronikoak aurkeztu ezean, lizitaziotik kanpo geratuko da.

#### **B.- 2. gutun-azala.- Balio-iritzi baten mendekoak EZ diren irizpideak**

1.- **Eskaintza ekonomikoa**, I. eranskin gisa sartutako ereduari jarraituz, eta BEZ banakatuta.

2.- **Esperientzia gehigarria**



Egindako berriazko lanen balorazioa, honakoak aipatuta: bezeroa, edukia eta betearazi den urtea:

- a) Goi mailako euskal kirol olinpikoaren eta paralinpikoaren sektoreari lotutako bideoak grabatzen eta editatzen egindako berriazko lanen zerrenda.
- b) Sektore publikoaren esparruan egindako ikus-entzunezko lanen zerrenda.

Proposamenen alderdi komunak

- Proposamenak gaztelaniaz eta euskaraz idatziko dira.
- Ez dira onartuko hutsuneak, errakuntzak edo ezabaketak dituzten proposamenak, Fundación Basque Team Fundazioaren ustez, eskaintza aintzat hartzeko funtsezkoa dena ulertzen oztopatzeko moduan badaude.
- Lizitatzailerik bakoitzak proposamen bakarra aurkeztuko du. Ezingo du bestelakorik aurkeztu beste enpresa batzuekin denbora baterako elkartuta, banaka aurkeztu bada edo batean baino gehiagotan agertu bada. Arau horiek urratzeak hark aurkeztutako proposamen guztiak lizitazioan ez onartzea ekarriko du.

Aurkeztutako agiri guztiak jatorrizkoak izango dira, edo kopia kautotuak.

Notario-agiriak badira, Notarioaren Legeak eta Erregelamenduak legitimazio arloan ezarritakoei jarraituko diete.

Prozesu honetarako Fundazioak Erregistroan jatorrizkoen kopia doi gisa zigilatutako agiriak ere baliozkotzat emango dira.

## **5. Agiriak ziurtatzea eta kalifikatzea**

Kontratazio-Mahaiko idazkariak gutun-azalak jaso eta gero, Kontratazio-Mahaia batzartu egingo da garai eta modu egokian aurkeztutako agiriak aldeztu aurretik kalifikatzeko.

Mahaia, zuzentzekoak diren akatsak edo hutsuneak atzematen baditu aurkeztutako agiritan, ahoz eta idatziz jakinaraziko die interesatuei, eta, gehienez, hiru egun balioduneko epea emango die lizitatzailerik, zuzenketak egin ditzaten. Horrela ez bada, lizitatzailerik kanpo geratuko dira behin betiko.

Akatsak zuzentzea eskatu zaien enpresa lizitatzailerik horretarako erabilitako agiriak Erregistroan aurkeztuko dituzte, ezinbestean.

Ondoren berriz elkartuko da Kontratazio-Mahaia eta dagokion erabakia hartuko du jaso diren zuzenketak direla-eta lizitatzailerik behin betiko onartzei buruz.

## **12. KONTRATAZIO-MAHAIA**

Honela osatuko da Kontratazio-Mahaia:

Presidentea: Elena Etxebarrieta, Fundazioko Komunikazio arduraduna.

Bokalak: Borja Osés, Fundazioko aholkulari juridikoa; eta eta Aitor Elduaien, komunikazio arloko teknikari aditua kirol arloan.



Idazkaria: Maria Pérez, Fundazioko administraria.

### 13. PROPOSAMEN EKONOMIKOA IREKITZEA

Kontratazio-Mahaiak jendaurrean irekiko ditu proposamen ekonomikoen gutun-azalak 2019ko ekainaren 12an, 10:00tan, ondorengo esteka elektronikoaren bidez:  
[https://www6.euskadi.net/lizitazioa/directo\\_basqueteam\\_es.html](https://www6.euskadi.net/lizitazioa/directo_basqueteam_es.html).

### 14. PROPOSAMENEN BAREMAZIOA

Honelakoa izango da egindako proposamenen baremazioa:

A) Balio-iritzi baten mendean EZ dauden irizpideak:	55 puntu
A.1) Eskaintza ekonomikoa Eskaintza ekonomikorik onena: gehieneko puntuazioa Eskaintza ekonomikoen balorazioa egiteko, puntuaziorik handiena emango zaio eskaintzarik baxuena aurkezten duen enpresa lizitatzailari. Eskaintza horri eskaintzarik baxuena deituko diogu. Lortutako puntuak kalkulatzeko, honako formula hau erabiliko da: Gehieneko puntuak (X) bider tarifa bakoitzaren eskaintzarik baxuenaren zatidura lizitatzailaren eskaintzatik. Formularen emaitza negatiboa bada, 0 puntuko balorazioa emango zaio.	25 puntu
A.2) Esperientzia gehigarria: Goi mailako euskal kirol olinpikoaren sektoreari lotutako lanen zerrenda: 6 puntu jarduera-urte bakoitzeko (gehienez, 30 puntu)	30 puntu
B) Balio-iritziaren mendeko irizpideak: <ul style="list-style-type: none"><li>○ Balioetsi egingo dira goi mailako euskal kirol olinpikoari lotutako ikus-entzunezko informazio-lanak: 10 puntu.</li><li>○ Balioetsi egingo dira goi mailako emakumezkoen euskal kirol olinpikoari lotutako ikus-entzunezko informazio-lanak: 10 puntu.</li><li>○ Balioetsi egingo dira goi mailako euskal kirol paralimpikoari lotutako ikus-entzunezko informazio-lanak: 10 puntu.</li><li>○ Goi mailako euskal kirol olinpikoari lotutako irrati-kronika informatiboak, euskaraz eta gaztelaniaz: 10 puntu.</li><li>○ Prentsa idatzian edo online euskaraz argitaratutako idatziak: 5 puntu.</li></ul>	45 puntu

### 15. KONTRATUA ADJUDIKATZEA

Kontratua burutuko da, Kontratazio-Mahaiak proposatuta, Kontratazio-Organoak kontratuaren adjudikazioa egiten duenean. Kontratazio-Organoak erabakia arrazoitu beharko du mahairen proposamenarekin ados ez badago.

Kontratua, gehienez, 7 egun balioduneko epean adjudikatuko da, plikak jendaurrean irekitzen direnetik zenbatzen hasita.



Kontratuaren adjudikazioa idatziz jakinaraziko zaie lizitatzailerei, posta ziurtatu bidez edo aurretik emandako posta elektronikoz bidez.

Sektore Publikoen Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 149.2 artikulua ezarritakoari jarraituz, eta adjudikatzeko hainbat irizpide erabili direla, baldintza-agirietan parametro objektibo batzuk jaso beharko dira eskaintza bat anormala dela jotzeko kasuak identifikatzeko. Bada, kontratazio honen xedearren izaera eta ezaugarriak kontuan hartuta, nabarmenki baxuegiak dira aurkeztu diren eskaintza guztien batezbesteko aritmetikoa baino % 20 baxuagoak direnak, eta altuena kanpo geratuko da.

## **16. KONTRATUA FORMALIZATZEA**

Kontratua formalizatzeko agiria 7 egun balioduneko epean emango da, adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Kontratatari egotz dakizkiokeen kausak direla medio, kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu ezin bada, Fundación Basque Team Fundazioak kontratua suntsiaraztea erabaki dezake. Aldez aurretik dagokion entzunaldi-izapidea eskainiko zaio interesatuari.

Kontratua pribatua izango da, eta jurisdikzio-ordena zibila eskuduna da kontratua interpretatzean edo aplikatzean sortzen diren gatazkak ebazteko.

## **17. KONTRATUAREN ARDURADUNA**

Kontratazio-organoak Fundazioko koordinatzailea izendatuko du kontratuaren arduradun, eta berari dagokio kontratua betearazten dela gainbegiratzea eta erabakiak hartzea nahiz jarraibideak ematea adostutako prestazioa zuzen ematen dela bermatzeko, betiere dituen ahalmenen baitan.

## **18. ARAUDI ERREGULATZAILEA**

Sinatzen den kontratua pribatua izango da eta honako hauek arautuko dute:

- Plegu honetako klausulak.
- Euskadiko Fundazioen Legeak ezarritakoa.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

Kontratua, terminoak edozein direla ere, hari erantsitako agiriak, pleguak edo Fundación Basque Team Fundazioak adostutakoa betearazteko emandako era guztietako arauak ez ezagutzeak ez du salbuetsiko enpresaburua kontratua betetzeko betebeharretik.

Jurisdikzio-ordena zibila izango da ebazteko eskuduna aldean artean sortzen diren gatazkak, botere adjudikatzailatzat hartzen diren erakundeen kontratu pribatuaren ondoreari eta azkentzeari buruzkoak. Halaber, jurisdikzio-ordena zibil hau eskuduna



izango da kontratu pribatuak prestatu eta adjudikatzeari eragiten dieten auzi lizkartsuen berri izateko. (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 27.2 art., Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).

## **19. ORDAINKETA-ARAU BIDEA**

Adjudikaziodunak faktura aurkeztu ondoren egingo da ordainketa. Egindako ekintzak adieraziko dira fakturan. Kontratua sinatu denetik eta kontratuaren indarraldia bukatu arte zenbateko bereko lau faktura egingo dira, eta bakoitzaren zenbatekoa da adjudikazio-prezioaren % 25. Fakturak egiteko data bat etorriko da emanaldia izango duen ekitaldi bakoitzaren bukaera-datarekin.

Adjudikaziodunak eskubidea izango du hitzartutako prezioa jasotzeko, kontratuan ezarritako baldintzetan, benetan egindako eta Fundazioak formalki jasotako lanak emateagatik.

## **20. AZPIKONTRATAZIOA**

Kontratu honen xede diren jarduerak zuzenean egingo ditu enpresa adjudikaziodunak. Salbuespenez, Fundación Basque Team Fundazioak baimena eman dezake adjudikazioduna ez den enpresa batek kontratuaren xedeari lotutako langileak edo lanak azpikontratatzeko, SPKLren 215. eta 2016. artikuluei jarraituz. Berariaz onartu beharko da. Ezinbesteko baldintza da enpresa azpikontratatistak egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Azpikontratutako enpresak arlo guztietan duen jokaeraren erantzulea enpresa adjudikazioduna da Fundación Basque Team Fundazioaren aurrean: zerbitzuaren kalitatea, entregatzeko epea, bukatzeko epea, datuak erabiltzeari eta informazioari buruzko obligazioak, eta azpikontratutako enpresak gizarte- nahiz zerga-obligazioak betetzea.

## **21. EGINDAKO LANEN JABETZA**

Atal guztietan egiten diren lanak Fundación Basque Team Fundazioarenak dira.

Adjudikaziodunak ezingo du berarentzat erabili edo hirugarrenei eman kontratatutako lanen daturik, ezta lanen edukia argitaratu ere, osorik edo partzialki, Fundación Basque Team Fundazioaren baimen idatzirik gabe. Edonola ere, adjudikazioduna izango da obligazio hau ez betetzearen ondorioz sor litezkeen kalte-ordainen erantzulea.

## **22. KLAUSULA BEREZIAK**

Exekuzio baldintza berezia izango da enpresa esleipendunarentzat, lana burutzeko tresneriaren eta ondasun konstrumigarrien ingurumen kalitatea bermatzea. Eta baldintza berezien betetzea bermatzeko, erantzukizun adierazpena aurkeztuko du enpresa esleipendunak, aitortuaz, zerbitzua exekutatzeko erabiliko den tresneriak eta ondasun kontsumigarriek ingurumen kalitatearen gaineko araudia betetzen dutela.



### **23. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA**

SPKLren 319. artikulua arabera, Administrazio publikoen kategoriakoak ez diren botere adjudikatzailerekin egindako kontratuen ondoreak eta ezeztatzea zuzenbide pribatuko arauak gidatuko dituzte; SPKLren 211. eta 313. artikuluetan ezarritako kontratua suntsiarazteko arrazoen kalterik gabe.

### **24. LANEN HASIERA**

Lanak hasteko data ofiziala kontratua sinatzen den hurrengo eguna izango da.



## I. ERANSKINA

### PROPOSAMEN EKONOMIKOA

.....jn./and., adinez nagusia,  
.....n bizi dena, eta NAN zk....., bere izenean edo  
..... enpresa ordezkatzuz, helbide soziala  
....., eta IFK zk. ...., lehiaketa honetan parte  
hartzen duen honek:

“FUNDACIÓN BASQUE TEAM FUNDAZIOAREN IKUS-ENTZUNEZKO ZERBITZUAK  
KONTRATATZEA”

Fundación Basque Team Fundazioak deialdia eginda, honakoa adierazten du:

Konpromisoa hartzen du lehiaketako prestazioa emateko, eskatutako baldintzak betez,  
honako prezio honetan:

**Zerbitzu-saria.....€**  
**BEZ % 21 .....€**  
**Guztira .....€**

.....-n, .....-(e)ko, .....-aren .....-(e)(a)n

Sin.:





## II. ERANSKINA

### ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jn./and., NAN zk. ...., .....ren izenean, IFK zk. ...., helbide soziala ....., ..... den aldetik, interesatuta dagoela Fundación Basque Team Fundazioak deitutako adjudikazio prozeduran.

Honako honen bidez ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA egiten dut azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen, 140.1 c) artikulua ondoz ondo (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora):

- Ni ordezkatzeko nauenak ez duela sektore publikoarekin kontratuak egiteko debekurik, SPKLren 71.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.
- Egunean ditudala zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek hala ezarrita. Konpromisoa hartzen dut betekizun horren ziurtagiria aurkezteko kontratua formalizatu aurretik, kontratazioa arautzen duten Baldintza Orokorren Pleguarekin bat, nire ordezkaria adjudikaziodun izanez gero.
- Esleipendun izatekotan, zerbitzua exekutatzeko erabiliko diren tresneriak eta ondare kontsumigarriek ingurumen kalitatea bermatzeko arauak beteko dituzte.

.....-n, .....-(e)ko, .....-aren .....-(e)(a)n

Sin.:

### III. ERANSKINA

#### Pertsona juridikoen erantzukizunpeko adierazpena

(.....), IFZ (.....),  
 (.....)ko (ahalordedun, zuzendari orokor, administratzaile bakarra) den aldetik, IFZ (.....), eta jakinarazpenak bidaltzeko helbidea (.....), zk. (.....), (PK.....), (Herria.....), kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko indarrean dagoen araudiak ezarritakoa betetzeko, honakoa

#### ZIURTATZEN DU

1 – Egiazkoak direla 10/2010 Legearen Erregelamenduaren 4. artikuluan ezarritako identifikazio formala egiteko aurkeztu diren agirietako datuak. Badago indarrean aurkeztutako informazio guztia:

BAI EZ

2 – Ordezkatzen duen sozietatearen jabetza edo kontrola egitura hauxe dela:

<input type="checkbox"/>	Ez dago bazkiderik / akziodunik % 25etik gorako partaidetza duenik.
<input type="checkbox"/>	Hauxe da % 25etik gorako partaidetza duten bazkideen / akziodunen zerrenda:

BAZKIDEAREN EDO AKZIODUNAREN IZEN OSOA	PF / PJ	IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITATEA	PARTAIDETZA (%)

PF: pertsona fisikoa / PJ: pertsona juridikoa

3 – Azken finean, kapitalaren % 25etik gorako portzentajea edo ordezkatzen dudana pertsona juridikoaren boto-eskubideak dituzten edo kontrolatzen dituzten, zuzenean edo zeharka, pertsona fisikoak, edo estatutu-akordio edo xedapenen bidez edo beste bitarteko batzuen bidez pertsona juridikoaren kudeaketa, zuzenean edo zeharka, kontrolatzen dutenak honako hauek direla:

<input type="checkbox"/>	Ez dago pertsona fisikorik kapitalaren % 25etik gorako portzentajea edo ordezkatzen dudana pertsona juridikoaren boto-eskubideak dituenik edo kontrolatzen dituztenik, zuzenean edo zeharka, edo beste bitarteko batzuen bidez enpresa horren kudeaketa, zuzenean edo zeharka, kontrolatzen duenik.
--------------------------	---

Hurrengo hauek:

TITULAR	ERREALAREN	IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITATEA	KONTROLA
---------	------------	----------------	----------------	----------



IZEN OSOA			(%)

4 – Administrazioa gisa jarduten dutela Patronatuko kideek (fundazioetarako) edo zuzendaritza-batzordeko kideek (elkarteetarako):

ADMINISTRATZAILEAREN IZENA	PF / PJ	IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITATEA

Lehen aipatutako administrazioaile, patronatuko kide edo zuzendaritza-batzordeko kideren bat pertsona juridikoa izanez gero, adierazi pertsona juridikoaren administrazioaileak izendatutako pertsona fisikoaren izena:

SOZIALITATEA	ADMINISTRATZAILEAREN IZENA	IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITATEA

Eta horrela jasota gera dadin, eta dagozkion ondoretarako, honakoa egiten dut.

.....-n, .....(e)ko, .....-aren .....(e)(a)n